

Lohilakat: ipuia eta historia

(Lohilakat: Recitals and History)

Arbelbide, Xipri*

14 Salie

F-64100 Baiona

* Euskaltzain urgazlea

Eusko ikaskuntza

Anton Abadia Etiopiatik sartu zen 1848an. Bigarren errepublika zen, garai beroak Iparraldean. Parisen egin oihanen lege baten ondorioaz, ametz oihanak berak alatzeari debekatua zen. Errepublikak libertatea hitzematen zuen: oihanetan alatzeko eta soldadogoa ez egitea libertatea beraz ulertu zuten Euskaldunek. Legeak ez dira egunetik biharrera aldatzen. Laborariak oldartu ziren Armendaritz, Amikuze, Atarratze, Altzürükü, Muskildi, Oztibarre eta Garazin: hemen dugu aurkitzen Lohilakat.

Giltz-Hitzak: Lohilakat. 2. Errepublika. Xaho. Garazi. Oztibarre. Amikuze. Armendaritz. Muskildi. Altzürükü.

Antoine d'Abbadie retornó de Etiopía en 1848. Era la época de la Segunda República, tiempos movidos en Iparralde. De resultas de una ley sobre bosques se prohibió el pasto en los quejigales. La República había prometido la libertad y los vascos la habían entendido como libertad de pasto en los bosques y exención del servicio militar. Las leyes, empero, no cambian de un día para otro. Los agricultores se alzaron en Armendaritz, Amikuze, Atarratze, Altzürükü, Muskildi, Oztibarre y Garazi: es aquí donde nos encontramos con Lohilakat.

Palabras Clave: Lohilakat. II República. Xaho. Garazi. Oztibarre. Amikuze. Armendaritz. Muskildi. Altzürükü.

Antoine d'Abbadie revint d'Ethiopie en 1848. C'était la 2ème République, période mouvementée en iparralde. Le code forestier élaboré à Paris interdisait de pâturer même dans les bois de chênes tauzins. La République promet la liberté: liberté de faire paître les troupeaux dans les forêts et de ne pas faire le service militaire comprennent les Basques. Mais il faut du temps pour modifier une loi. Impatients, les paysans se révoltent à Armendaritz, Amikuze, Tardets, Aussurucq, Musculdy, Oztibarre et en Garazi où nous trouvons Lohilakat.

Mots Clés: Lohilakat. 2ème République. Xaho. St Jean Pied de Port. Oztibarre. Amikuze. Armendaritz. Musculdy. Aussurucq.



J. J. J.

Jeus soussignés Maire —
conseillers municipaux et autres habitants notables
de la commune de *Sacac*, canton de *St. Jean-
pied de port*, troisième arrondissement de —
département des Basses Pyrénées;

Certifions devant qui il appartiendra que
le sieur *Mirdeceeg* (*Raymond*), cultivateur, maître
de la maison *Lehilacat* de cette commune, et père
de trois enfants très en bas âge, est de bonnes vie et
mœurs, et que sa conduite a toujours été régulière.

Je soussigné
Maire

GARCIA

Nous certifions en outre que le sus dit *Mirdeceeg*
Raymond, sortant d'une honorable famille, n'a
jamais été réprimandé ni condamné à aucune peine,
correctionnelle, pour vol, escroquerie, abus de —
confiance, ou atteinte aux mœurs.

Je soussigné
Maire

En foi de quoi nous nous faisons un
grand plaisir de lui délivrer le présent certificat

Je soussigné
Maire

Fait ci la *Mairie* de la commune de *Sacac*
le *10* jour de *juillet* mil huit cent quarante huit

Je soussigné
Maire



Je soussigné
Maire

Basco fils
Echeborine
Abelbide
Eduard Estarrey
Chirigain

BASCANS
et coupes
Grand

de la commune de Sacac
Je soussigné
Maire
Barnesche
Echeborine

Echeborine
BORCA
IAIARTEPARAI

de la commune de Sacac
Je soussigné
Maire
Echeborine
Abelbide

Bigarren errepublika botarik Napoleon III inperadoreak boterea hartu berria zuen Frantziar Antonio d'Abadie honara itzuli zelarik. Bigarren Errepublika denboran zen gorenean izan Agosti Xaho: Atarratzeko kontseilari Nagusi, Baionako hautetsi eta zenbeit dotzena boz faltatu zitzaizkion deputatu pasatzeko. Bigarren Errepublikaren garaioak dira orai aipatuko ditugun gertakariak, bigarren Errepublika hori izan delarik Iparraldeko historioaren parte bizienetarik, interesanteneetarik.

“Supazter xokoan” liburuan, (200-205 orrialdeetan) Jean Barbier Garaztarrak kondatzen du Lohilakat-en historia. Ez da ipuin xoil bat zeren eta Lohilakat hori izan da zinez: Erramun Mindurry, dugu. 1820an sortu zen Jatsu Lohilakatian aita zuelarik Etienne Mindurry eta ama, Mari Mounho. 1846ko urtarrilaren 21an ezkondu zen Jana Mari Arrabit-ekin, hau ere Jatsuarra, Karakotxeko Joanes Arrabit eta Mari Erramundegiren alaba. Urte berean sortu zitzaizen Mari, lehen alaba, abendoaren 2an. 1847ko otsailaren 20an bigarren Mari bat, eta 1848ko otsailaren 28an hirugarren neska bat Dominika. Handik eta bi hilabeteren buruan hil zen Erramun-en aita apirilaren 10an; bere semea famatu eginen duten gertakariak baino hamabost egun lehenago. Gero ikusiko dugun bezela 3 urte preso egon zen: ez da beraz haurrik arte horretan.

Laugarren haurra, Martin, sortu zitzaion 1852ko uztailaren 7an. Bosgarrena, Pierre, 1856ko uztailaren 29an. Seigarrena, Mari, izen bereko hirugarrena, 1858ko apirilaren 14an, Zazpigarrena, Jean, 1859ko maiatzaren 28an eta zortzigarrena, Marie oraino, 1861ko martxoaren 10an.

1891ko agorrilaren 30an zendu zen, Barbier-ek aipatzen dituen 75 urteetara heltzeko, lau urte falta zitzaizkiolarik.

ZER GERTATU ZEN

XIXgarren mendeko kantuek askotan aipatzen dute “Betiri Sants” edo gosetea, gosetea ezagutu baitzuten orduko Euskaldunek. Frantziako Iraultza izan zelarik Euskal Herria larrutua izana zen. Ez aldi bat, bainan bi aldiz. Lehenik gerla izan zelarik Frantzia eta Espainiaren artean, 1792an. 100.000 soldado izan dira hemen, guti eskas, Euskaldun bezenbat. Gizon horiek ase behar zuten. Beren zaldiek ere bai. Armadaren trasteak karreatu behar ziren. Eta nor zen lehen lerroan horretarako: gure laborariak. Behar zuten belarra eman, lastoa, artoa, garia eta abar. Geure herriko paperretan ikusi dugu, behin, zeukaten belar guzia eman behar zutela. Eta berek gero? Zeukaten arto guzia armadari emanik, Landesetara joan ziren, berek jateko behar zuten artoa erostera. Horiek denak karreatu behar ziren orduko bideetan.

Gerla pasatu zen.

Gaixtoena 1813an ikusi behar zuten. Armada frantsesa Espainiatik bota zuten Portuges eta Inglesek. Iparralde honetan egon ziren 1813ko uztailetik 1814ko otsaila arte. Berriz ere hemengo jenden bizkar bizi, bainan gehiago dena, Espainian hartu ohidura txarrak galdu gabe: denak haizu zitzaizkien hala nola emazteak bortxatzea, zaldiak arto landetan sartzea: “Le pays ne s'en relèvera pas”, idatzi zion segetutzeko gutun luze batetan, Pabeko prefetak Parisko barne ministroari.

Gainera, 1792tik 1814 arte gerla izana zen eta gure gaztek soldado joan behar izan zuten, haien falta sendi zelarik hemengo laborari etxeetan.

Zauriaren gaineko pikoa, Parisko legegizonek erabaki zuten oihana Frantziaren aberastasan bat izanez, begiratu behar zela, eta horretarako, oihanak debekatuak izan ziren kabalentzat. Hemengo oihanek deus ez zuten balio zurarentzat: ametzak ziren, eta ameztoietara

igortzen zituzten alatzera behi eta ardi etxe guzietan. Alagia horien debekatzea jadanik gaizki zebilan ekonomiaren kontrako kolpe berri bat izan zen.

Horiek denek egin dute ekonomia peko errekarara eroria zela. Horiek denek egin dute gosetea bazela. Horiek denek egin dute gure gazteak Ameriketara abiatu zirela trumilka, ezin biziarekin.

1848an Bigarren Errepublika sortu zelarik Parisen, alde guzietan 'libertatea' hitza baizik ez zelarik entzuten, esperantza sortu zen hemen, bereziki oihanen lege horretaz.

1848an Pabeko Kontseilu Nagusian egin zuen mintzaldian, Agozti Xaho, Atarratzeko Kontseilari Nagusiak zioen: "*Depuis la Révolution de février, la population de la Navarre et de la Soule est en état permanent de résistance, je dirai presque d'insurrection, contre l'administration forestière*". Hots! Baxe Nabarre et Xiberoko jendeak oldartzeko punduan ziren oiha-netako administrazioaren kontra... Zer gatik?

Ez zen orduko historia. 1827an Parisek lege bat bozkaturia zuen Frantziako oihanetaz. Lege bera Frantzia guzientzat: "*L'uniformité de la législation a constitué définitivement l'unité de la France.*" Legearen batasunak egiten zuela Frantziaren batasuna. Alpetetako izeki oihanentzat ala Garraldako ametzentzat lege bera!

Lege hori zer gatik ez zen egokia hemengo, luzeki esplikatzen Agozti Xahok, Paben, beste Kontseilari Nagusiei, eta Dindaburu Iholdikoarekin Parisen izana zen txosten baten emateko deputatuei, lege hori aldatu behar zela erranez.

Lege horren arabera, mendiko artzainek beharko zuketzen herrira jautsi auzapezaren baimena eskatzeko, etxolako bizpahiru ohola aldatu beharko zituztelarik. Gainera, auzapezak ez zieten baimenik ematen ahalko, esperta batek egin debisa ikusi eta baizik. Espertak bortura joan beharko zukeen beharren neurtzera. Ez zezaketzen apairuak berotzeko egurrik har baimenik gabe, ez eta pala edo kotxu edo uztarri baten egitekorik. Ardiek ez zuten pagoen itzallera joateko ahalik nahiz ez zieten makur izpirik egiten. Lege hori ezin aplikatua zela ere herrietan, zioen Xahok. Non ez zen nahi zutenaren kontrarioa bilatzen: kabalak emendatzeko orde, haien kopurua ttitkitzea.

Oihanak ez ziren diru iturri hemen, mendietara ez baitzen biderik eta mendiko egurra karioegi heldu baitzen: Maulen 3F,50tan erosten zen pilota egurra, menditik hori bera jausteko behar zen itzainaren eguneko soldata!

Gaitzeko izunak biltzen zituzten laborariek, hala nola 10F kontrabandan zen behi baten-tzat. Xiberoko sindikata Pariseko auzitegi goreneradino izana zen irabazteko, bainan 1.000 F gosta zitzaion eta laborari gehienek ez zezaketzen dei egin izunen kontra, garestiegi zelakotz.

Xahok azpimarratzen zuen 1669an erregek lege bat egin zuelarik oihanetaz, lege hortarik kanpo gelditu zirela Baxe Nabarre eta Xiberora.

Kontseilu Nagusiak txosten bat baino gehago idatzia zuen lehenago ere gai hortaz, 1839, 1844, 1846an besteak beste, bainan debaldetan.

HERRIA OLDARTU

Zerk ekarri zituen 1848ko oldartzeak. Neure ustez, libertatearen haizea senditu zuten Euskaldunek II. errepublika sortzearekin eta bazter guziak zapartatu ziren: Donibane Garaziko oldartzearen ondotik egin ikerketan ikusten dugu dotzena erdi bat lekukoren arabera, "Biba Libertatea" oihu egiten zutela gaztek.

Martxoan errepublikak Parisen gaina hartu zuenetik, Errepublikaren bestak egiten hasi ziren herri handienetan. Libertatearen zuhaitzak landatzen, jaun erretorak benedikaturik eta batzutan mintzaldia hauek eginik. Nahiz ez ziren erretor guziak alde agertu, hala nola Landibarren ez zuten apezik hatxeman gaztek beren zuhaitza benedikatzeko. Arratsean etxean sartu zelarik, bila joan zitzaizkion, baina honek ez zuen atea ideki, ez zuela zuhaitza gauaz benedikatuko. Gaztek atea aizkora ukaldika hautsi zioten. Apezetxean sartzearekin, xoria airatua zen gibelesko leihotik jauzi eginik! Ez zuen arazorik izan norat joan jakiteko. Dindaburu kontseilari Nagusiak bere sustengu komitean agerturik, Pagola Landibarreko axuantanren izena, honek egunkariaren bidez jakin arazi zuen ez zela egia: “*Je saurais défendre mes droits en qualité de vieux militaire de l'empereur.*” Gerlari ohien mentalitatea ez da oraikoa.

Baionan, Xahok bildu zituen Errepublikaren aldera, bat bestearen ondotik, herriko kontseilua, armada eta apezpikua

Zer heinetan ginen erakusten dute abendoan izan ziren errepublikako lehendakari bozkek: Frantzia Napoleon aise nagusitu zelarik %73 bilduz, Hazparnen eta Donibane Garazin Cavaignac atera zen lehen. Baionan Cavaignac eta Ledru Rollin gorriek Napoleonek bezenbat egin zuten boz zenbeit eskas.

ATARRATZE

Maiatzaren 8an, merkatu egunarekin Atarratzen bilduak ziren artzain laborariak, plaza sari biltzeko ttattolari mendekatu zitzaizkion, hautsi zuten, eta gero, oihantzain buruaren etxera joan, artaldeak mendi guzian libre utz zitzaizkion.

Ondoko astean oste handitan jautsiak ziren artzain laborariak merkatura. Oihuka hasi ziren, oihan legerik ez zutela nahi, plaza sariak ez zituztela pagatuko. Baina aintzineko astean gertatua ikusirik, prefetak armada igorria zuen. Harma kroza ukaldika ari izan ziren soldadoak Xiberotarren kontra, batzu kolpatzen zituztela.

Artzainek jakin arazi zuten, oraino oste handiagoan jautsiko zirela ondoko merkatu egunean. Armada ere bai.

ARMENDARITZ

Ekainaren 28an, Armendaritzen ziren mugitu. Donapaleun zegoen Saint Martin oihan inspektorea herrira etorri zen, Dalban oihantzain jenerala eta hiru oihantzainekin: Emategi, Patient eta Mongaston, azken hau Armendaritzekoa: urtean 250F gostatzen zitzaizen oihantzaina, 2003Ftako buxeta zutelarik herrian. Etxemendia ostatuan haskaiten ari zirelarik denak, Larcade etxekandereak galdetu zien zertara etorriak ziren hain nonbre handian eta grado horretako gizonak gainera. Mahainean zirenek ez zuten erreposturik emateko astirik izan. Hea zer zuten arrangura, berehala hor ziren beste Armendariztar batzu, Gabriel Etxebazter Ameztoi, Piarres Paguape zapataina, burua neguko elurra poliki hunkia ala batek ala besteak, Enaut Elizeiri hargina eta Antton Bidegain aita familiakoak, ez atzo sortu buru beroak batzu ala besteak. Patient Izurako brigadierak erran zien motz motza, nagusiek manaturik etorriak zirela. Alabainan, inspektur batek eta oihantzain jeneral batek Armendariztar xoil zenbait eman behar ote zizkieten konduak? Bidegainek bota zien orduan:

– Merexi zenukete lau parte eginak izatea.

Mahainetik xutiturik oihantzainak abiatu ziren Ximixerrekara zuhaitz markatzera. Zuhaitzak markatzen ari zirela, hona Etxemendiko etxekanderea zaldiz, bi errebolbora zeuzkala berekin eta dotzena erdi bat gizon gibeletik, sardeak edo makilak eskuan.

– Zer ari zarete hemen, galdetu zien, Arkeko Joana berriak.

– Hemen markatu behar ditugu zuhaitz zenbeit eta hautua egiten ari gara.

Ez zutela ez, Armendaritzeko lurretan zuhaitzik markatuko! Itzultzen ahal zirela jin ziren lekura. Haiek berriz, lan hori egiteko pagatuak zirela.

Kalapitan ari zirela, beste gizon batzu heldu ziren bat bestearen ondotik. Ikusiz denak xede beretan zirela, zuhurtzia iduritu zitzaion inspektoreari Donapaleura itzultzea. Ondoko egunetan ere zerbait egin zitekeen.

Urruntzen ari zirela, Bidegain batek proposatu zuen denak han berean garbitzea.

Ez zuten oraino berrehun metro eginik, andere zalduna deika hasi zitzaiolarik inspektoreari, zaldia trostan hurbiltzen zitzaiola. Gizonak erran zion:

– Deus egitekorik ez dut zurekin. Ala erahil nahi nauzu?

Laster beste Armendariztarrak ere hor ziren, oihantzain talde guzia setiatzen zutela. Hauetarik bat, Patient, hasi zitzaien predikutan, bainan berehala konprenitu zuen hobe zuela ixilik egotea: bospasei muturreko bildu zituen.

Zer gertatzen zen oharturik, besteak aintzinduak zituen Emategi etorri zen harma eskuan.

Denak jauzi egin zioten gainera, harma kendu, Paguape eta Elizeiri makil ukaldika hasien zirela. Gero, Etxebazter, Bidegain eta Domingo Urrux Larre ukomilo ukaldika hasi zitzaizkien, azken hau ere, bere 52urteekin gizon zohitua zelarik. Zapataina zen Paguape bezela eta, tano egiteko ametz azal pozi zenbeiten beharretan zelarik, oihanzainetara eske joan beharaldi oroz. Hauek dena istorio, meneko zutela sendi arazteko. Laborariek ere zenbat izun ez zuten pagaturik, baizik eta behi bat edo ardi bat kontrabandan hatxemana izana zela oihan sakratu horietan. Oihanzainen aldi baitzen orai, laborari eta zapatainen meneko izaiteko!

Zer herrarekin ari ziren ikustearekin Saint Martin oihantzain buruak errebolbera atera zuen eta bere laguna libratu, ezagutzarik gabe gelditzen zela ixtan bat lurrean.

Donapaleura buruz joan ziren gero. Landibarren pasatzean, Battitta Etxeberri Behauneko sendagileari arta arazi zioten zauritua, nahiz minik handienak pasatuak zituen ordukotz, bainan medikuaren paperño batek bere efetuñoa izan baitzezakeen gero auzitegian!

Oihantzaina artatzen ari zirela, beste gizon batzu bildu ziren oraino. Berrogoi bat bazi- tezkeen, baktotxa bere makila, sardea, errebolbora edo harma eskuan, denak berdin bertuak, artetan tiro bat edo beste botatzen zutela airera, ez zirela arrallerian ari, jauntto hoiei erakusteklo doa.

Etxeberriren etxetik ateratzen ari zirelarik, egundainokotan setiatuak ziren! Piarres Mendiburu eta Gilen Athor zituzten partida oraikoan.

– Zuen nagusien manuz etorriak zaretela eta, baduzue frogarik? Nagusiak, zuhaurek zarete, zuen jauntzietarik ageri den bezela, ez?

Saint Martin-ek:

– Armendaritzeko auzapezak berak gaitu deituak, uste ez baduzue ere. Hona igorri daukun gutuna, berak izenpetua.

So egiten diote.

Ezin ukatua. Auzapezak izenpetu paperra bazuten. Berehala Armendaritzera itzultzea erabaki zuten aferak han xuritzeko. Bainan oihantzainek ez zuten itzuli nahi, ez zutela bide hori berriz eginen. Nahi ala ez, joan behar izan zuten. Oren batez kalapitan ari izan ondoan. giroa ez zela hobetuz johan ikusten baitzuten. Urruxek kabesturutik hartu zuen inspektorearen zaldia, ez zedien ihesari eman lauhazketan.

Ez zuen minutarik bidean zirela, Mattin Hiriart Landibarreko erretora kurutzatu zutelarik

– Jauna erretora, protestatzen dut egina zaidan bortxaketaz, zioen Saint Martin-ek.

Haratago Piarres Ameztoi errienta kurutzatu baitzuten, hau ere lekuko hartu zuen, nola bere libertatea zangopilatzen zuten Armendariztarrek.

Ala bat, ala bestea, Armendaritzekin zitezkeen, oihantzain buruarekin baino segurrago!

Azkenean heldu ziren Armendaritzera, Boube auzapezaren etxera. Jende horiek denak hurbiltzen entzutearekin, atera jalgi zen.

– Zuk manatu diezu, Ximixerrekan zuhaitzak marka zituzaten?

– Nik? Jaa. Ez diet nik horrelakorik manatu, ez!

Paperra sudurraren pean eman zioten. So egin zion eta bi gogoeta egin eta:

– Aa! Baha! Badu zenbeit egun horrek. Ahantzia ere banuen.

Hona non su deia joiten hasten den ezkila.

Sorhuetek paper bat erakutsi zion inspekturrari:

– Eta orai, bizirik itzuli nahi baldin baduzu etxera, paper hau izenpetu beharko duzu.

Armendaritzeko oihanak ez zirela legepean zeuden oihanetarik zioen delako paperrak. Bainan gure gizonak ez zuen amor eman nahi. Etxemendi ostatura eraman zituzten denak eta hango gela batetan hetsi. Piarres Etxeberri Sorhuetek hetsi zuen atea eta Mendiburu gelditu zen zain, errebolbora eskuan, besteak aldiz auzapezaren etxera joaiten zirela, harekin konduak xuritzeko.

Ez zutena arte horretan Mendiburu gaizo hori bildu presoak, baizik eta ondoko egunetan harek zituela konduak eman beharko, eta bizirako galeretara kondenatua izanen zela. Laxatzen baldin bazituen aldiz, denak barka izanen zituela. Izitua, barroko bortatik jalgitzera utzi zituen eta etxegibeleatik joan ziren Mehaineri buruz.

Bai, bai, bainan Mehaineko bidea ere Armendaritzen pasatzen baitzen! Laster ikusiak izan ziren eta egundainokotan setiatuak. Oraikoan ez zuten beste atera biderik. Delako paperra izenpetu zuen Saint Martin-ek. Bazekien bai, izenpeturik ere ez zuela balio izpirik! Lehenago egiten ahalko zuen. Bainan bere urgulua ba harek ere. Ez zuen nahi errana izan zedien, laborari xoil batzuen aintzinean amor eman zuela, harek inspektoreak.

Etxera itzultzearekin, berinak harri ukaldika hautsiak hatxeman zituen Mongaston, Armendaritzeko oihantzainak.

ALTZÜRÜKÜKO ANDEREA

Horrela deitu zituzten orduko kasetek, 1849ko primaderan, Altzürükün agertu jende bitxi batzu. Jadanik zurrumuru batzu entzunak izanak ziren, bainan ez ziren gehiagokorik sine-tsiak izan, baizik eta Altzürüküko oihanean molde berezi batetako andereak agertu zirela. Delako zurrumuruak konfirmatuak izan ziren.

Atarratzeko bi oihanzain, Ithurralde eta Etxekopar, bi pagoren markatzen izanak ziren etxolako oholak berritzeko eta sua egiteko eskatuak zituen artzain batentzat. Etxeratekoan gaua pasatua zuten, Bidalunian. Goizaldera Maulera buruz abiatu ziren. Herriatik urruntzearekin, lehen arbolapean gelditu ziren. Biak kokoriko zeudela, beren beharren egiteko, hona non hemezortzi emazte agertu zitzaizkien, biga salbu, bakotxa bere harma eskuan. Bi hauek ere ez ziren arras eskuak hutsik. Batek errebolbora zeukan eta besteak makila. Itxura guzieren araberak, makilduna zuten kapitaina edo kapitaintsa.

Azken honek ez bada, beste guzietan ikatzez belztua zuten. Kapitaintsak aldiz mantalin xuria bazuen begitartearen aintzinean Algeriako fatma haiek bezela. Oihantzainen gainera joan ziren, beren beharren gainera eror arazi eta harmak kendu.

Oihanera buruz eraman zituzten gero lehen batean, dena ele txar eta mehatxu. Itheko harroka baten puntan epaituko zituztela, hiltzera kondenatuko eta beste. Bidean tiroka ari izan ziren oihantzainen bolborarekin.

Harrokara heldu eta belaunika arazi zituzten eta kontrizioezko akta egin arazi, gure kaxketadunak ez baitziren fida baino gehigo, zer gertatuko zitzaien, ez ote zituzten han berean hilen, tiroz! Azkenean utzi zituzten, ez zirela gehiago hor gaindi agertuko zin egin arazi ondoran, harma eta bolbora kendurik balekinbale.

Biharamunean, Atarratzeko jujea etorri zen lekuen ikustera jandarma zenbeitekin, ikerketak egiteko. Emazterik ez zen gehiago. Funtsean delako emazteak gizonak ziren emazte jauntzitan. Afera horretan gelditu zen.

AMIKUZEREN OLDARTZEA

1849ko maiatzaren 31an ziren izan Amikuzeko gertakariak. Maiatzaren 1an Maulen egin inkante batetan, hamar hektara oihanen moztea bere gain hartua zuen Amikuztar zurgin batek, Amikuzeko oihanean. Bainan inkantea badela beti danik herri guzietan oihu egiten zelarik, aldi honetan ez zen horrela pasatu. Oihanen legeaz aspertuak eta aitzaki bat gehiago bazuten Amikuztarrek mugitzeko. Jakinez gainera delako libertatearen haize harek ufutzen zuela eta bestetan ere jendea ez zegoela geldirik.

Dena den, delako zurgina oihanera joan zelarik zuhaitz botatzera bere langileekin, 500 bat gizon etorri zitzaizkion eta etxera itzuli behar izan zuen. Ez zuen nornahi aintzinean. Herri bakotzeko auzapez, axuant eta herrigizonak, beren herritarren aintzinean. Falta zen auzapez bakarra, Arrutakoa.

A! Hori duka? Oihanetik jalgi eta, denak Arrutara joan ziren. Etxean sartu zitzaizkion, jo zuten eta paper bat izenpearazi, baizik eta ez baldin bazen oihanera joana bestekin, ez zela uste izan behar ez zela haiekien akort. Baietz, bai, errotik bat zegoela haien ikusmolde eta ekintzarekin.

Gero egun handia izan zen Amikuzeko ostatuentzat, zor zitzaion bezela ospatua izan baitzen ekintza hori. Jakin ezazue izan zela kantu eta irrintzina Amikuzeko bideetan egun eta gau hartan.

Bainan berria jakin arazi zuten Paben eta ekainaren 6an armadako lau konpainia igorriak izan ziren Amikuzera. Gehiago dena, Pabetik Parisera hel arazi zuten berria. Hilabete ondarrara gabe, Bidegarai Behauzeko auzapeza, hasarre gorrian zen. Lagun batek Donapaleutik ekarria zion, goiz hartan Pabetik etorri *Le Memorial* egunkaria: prefetak bere kargutik kentzea erabakia zuen, Miremont bere axuantarekin. Elgart, Bithinako auzapeza ere gaztigu berak joi ten zuen.

Zer? Jauna haundi horrek zerbait baldin bazuen erratekorik, ez baitzien berak egin behar komisionea bi auzapez hoieri? Kasetaren bidez jakin behar baitzuten berria, beste guzieren ondotik? Ez ote dakite zer den gizontasuna Paben? Ala deus baino gutiagorentzat daukate hemengo hautetsiak?

Gutun bat igorri zion jaun prefetari, Donapaleuko eskolako zuzendariari idatzi arazirik frantses eder batetan.

Jaun prefeta

Harritu naiz goiz honetan, Le Memorial egunkaria ekarri didatelarik. Neure kargutik kentzen nauzula jakiten dut, baizik eta, joan den eguneko gertakarien hobendun handiena naizela. Badakit akusazio hori ministroaren bulegora joanen dela. Eta neure burua xuritzeko ahalik ez didazu ematen?

Behauzeko auzapez sartu nahin izan dudalarik, ez nuen batere saltsa nahasteko bilatzen kargu hori. Baketzalea naiz. Batasuna laket zait eta bilatzen dut.

Egia da, joan den egunean, Behauzeko ezkilak jo duela, herriko mutila etxez etxe ibili dela. Ez nik manaturik, jaun prefeta. Hori egin nahi zuela aipatu didalarik, gain gaineratik debekatu diot. Lekukoak badituz. Agian entzun nahiko dituzu: ene bilo xurien izenean eskatzen dizut. Herriko mutila ene izenaz baliatu baldin bada jendeak biltzeko, merezi duen bezela gaztigatua izan bedi. Akulatzaileak izan baldin baditu, izenak eman bitza eta haiek ere gaztigatuak izan bitez. Donapaleuko jujearen ikusten izan naiz. Nire deklarazioak haren ganik izaten ahalko dituzu.

Behauzeko auzapezaren gutunak ez zuen ondorio handirik izan. Arte horretan herriko bozkak izanik eta bere herritarrek berriz bere kargutan emana zutelarik, urri ondarrean papearra etorri zen Paristik, Elgart Bitiñako auzapeza, Bidegarai Behauzekoa eta Miremont honen axuanta, beren kargutik kenduak zirela. Errepublikako lehendakariak berak izenpetua zuen paperra. Mihiak alhan hasi ziren heian horrelako fama ba ote zuten Amikuzeko bi herri horiek, Errepublikako presidentak berak ezagutzen!

Hasteko eta bat, bi herriek auzapez eta axuantak berriz izendatu behar zituzten lehen bai lehen.

Ondoko igandean berean meza nagusitik lekora bildu zen beraz kontzeilua. Hautagai bakar bat baizik ez zen kargu bakotxerako; aintzineko hautetsi haiek berak; Bidegarai eta Miremont. Biak beren kargutan konfirmatu zituzten beraz herri gizonek aho batez.

Hori da 'Hordagori, kanta ematea'. Dendariaeneko Battittak erran zuen bezela; "Hor duk orai, president jauna. Sar ezak sakelan! Zer uste hien ala Paristik izi araziko hintuela Behauztarrak?"

Ba baa, bainan presidentak ere baititu bere eskuko kartak. Bigarren gutun bat eskuratu zuten Behauzen, ez zituztela ez Bidegarai, ez Miremont izendatu behar. Beste norbeit bila zezatela. Amor eman behar zuten. Bi herritarrei beren ikustatea egina zieten. Kontzeilua bildu

zen egundainokotan eta hiru hilabete barne hirugarren aldikotz izendatu zituzten auzapez axuantak: Lacroix eta Muztiratz oraikoan.

MUSKILDI

1850ko otsailean bi oihantzain tirokatuak izan ziren Lojako oihanean itzuli bat egiten ari zirelarik. Ez ziren hunkiak izan bainan balak bide bazterreko pago bat jo zuen, gizon baten goratasunean. Oihantzainek harmak bazituzten bainan ez zuten ihardoki, nahiz 30-40 metretan ikusiak zituzten tiratzaileak sasupean.

Beren buruzagiak berehala abisatzeko partez ondoko zortzian baizik ez zituzten egin. Tiratzaileak mendekatuko zitzaizkielako beldurrarekin ote? Jakin orduko, buruzagiak suprefeta abisatu zuen eta honek ikerketa bat egin arazi

Juje eta jandarmen liotonanta, suprefeta bera eta karamañola guzia joan zen Muskildira. Auzapezari galdetu zioten tokiak ikus zitzan, auzoekin mintza eta zerbait jakin zezan. Iraultza denborako lege zahar baten arabera, herritar guziak pekatzeko hirriskutan zeuden hobendunen izenak salatzen ez bazituzten.

Zenbeit urte lehenago, Bidarrain, kontrabandista batzuek guardak tirokaturik, gisa bereko bisita izan zuten eta hobendunik ez hatxeman. Nehork deus ez zekien. Edo deus ez zekielan erraten bederen. Herri guzia kondenatu zuten 3.000 libera pagatzera. Eta 3.000 libera zerbeit zen Bidarra bezelako herri batentzat. Sekulan baino gehiago kontrabanda egiteaz, beste erremediorik ez zuten diruketa hori biltzeko.

Gaztigu beraz mehatxatu zituen Muskildiarrek suprefetak: edo oihantzainak tirokatu zituztenen izenak ematen zituzten, edo herri guzia kondenatua izanen zen. Pentsatzen zuten izenak salatu nahiagoko zituztela ezinez eta horrelako diruketa jalgi. Karkula bera egina zuten Bidarrain ere, bainan gauzak ez ziren haiek asmatu bezela pasatu

Zenbeit hilabete lehenago nahaskeriak izanak ziren Donaixtin, hain zuzen Lojako oihan hori bi herrien mugetan dago.

DONAIXTIN

1849ko hazaroaren 25an, Santa Katalina egunarekin bost oihantzainek itzuli bat egina zuten Donaixtiko oihanetan. Arratsaldeko lauetan etxera buruz johanki zirelarik, emaztez jauntziak ziren batzuk tirokatu zituzten, Barbestegitik ez hain urrun. Bat ixterrean hunkia izan zen, bainan gehiagorik gabe.

Prokuradore, jandarme eta gaineratiko ibili ziren berriz ere hobenduna ezagutu nahiz.

Ondoko apirilean tirokatzaileak nor ziren jakinik, Donapaleuko jujeak Lartzabaleko jandarmak igorri zituen Donaixtira. Bi gizon gelditu behar zituzten. Lehenaren etxera heltzearekin, ez zien atea ideki, baizik eta herriko auzapeza ez zutela berekin. Jandarmak etxaintzinean zeudelarik oraino emaztearekin arrazoinka, xoria airatu zitzairen barrokuko bortatik eta lagunaren abisatzera joan.

Lehena eskapatua zitzaieला ohartu bezen laster, bigarrenaren etxera joan ziren jandarmak eta aldi honetan, atea jo gabe sartu etxearen barnean. Bi gizonak elgarrekin ziren. Eskuak loturik eraman zituzten. Bainan berria berehala hedatu zen Donaixtin, jandarmak herritarak gelditzera etorriak zirela. Gizon parrasta bat bildu zen eta bidea moztu zien hede-xuriei.

Lagunak utzi zitzaizten. Jandarmek ezetz. Azkenean beren herritarrei loturik eskuetarik kendu zizkieten, hauetarik bati barnekoa urratzen ziotela eta besteari erhia odoletan uzten... ausikian.

Urrunetik barrandan zegoen oihantzain bat oharturik zer pasatzen zen, auzapezaren etxera abiatu zen, bainan norbeitek ikusia zuen bere sasuaeren gibelean zegoelarik. Makil ukaldika kolpatu zuen eta ezagutzarik gabe utzi lurrean.

Erran behar da gunee beroa zela lholdiko kantonamendua: ezker muturreko eta Xahoren adiskide mina zuten kontseilari nagusi hautatu: Honore Dindaburu, Bunuzeko notarioa: bere erretorrarekin elizan izan eztabada baten ondotik hiru aldiz kondenatu izan zen preso egoitera. Oztibartarrek ohore handitan eman zizkieten dantza jauziak presondegi aintzinean, atera zelarik eta Lartzabaletik Bunusera 300 gaztek lagundu zuten proosinoan, bandera gorria aintzinean!

DONIBANE GARAZI

Bainan Donibane Garazin ziren izan gertakari handienak. Hemen dugu ikusiko Lohilakat. 1848ko apirilaren 25a zen, astearta, feiria eguna. Gaitzeko gazteria bildua zen Garazi, Baigorri, Oztibarre eta urrunagotik ere: 20 herriz goititako jendeak agertzen dira ikerketa paperretan, Garazi-Baigorritik, bainan ere Ezpeleta, lholdi, Armendaritz, Bidarray, Luzaide eta Hoztatik. Jende moeta guziak agertzen dira, laborari, baratzezain, artzain, nagusi, etxekandere, okin, txokolet egile, musikari, zapatain, baxeragile, hargin, okin, mandozain, harmagile, mediku, dendari, ostaler, larrusaltzaile, sehi, mahaizturu, tornari, kauter, zinez mail guzietako herritarrak.

Feiria zen eta senditua zuketzen Parisko gertakariak zer bait aldatzen ari zutela. Berri gose eta non jakin berriak feiria batetan bezenbat jende biltzen den tokian baino hobeki. Gainera bozka biharamuna zen. Renaud Garaztarra, Etxeverri Baigorriarra eta Xaho Xiberotarra hautagai ziren besteak beste. Bai eta Paben zegoen Larraburu Garaztarra. Zenbeitek ziotenaz Lacroix apezpikua ere bai. Ondorioen berri jakinen zitekeen Donibanen. Noiz bildu zen horrenbeste Garaziko hiri nagusian.

Arratsaldeko lauak eta erdiak zitezkeen Baigorriko jandarmek Donibanekoeri ekarri zietelarik Joanes Laborde 27 urteko gaztea. Sei urte honetan soldado, xortearen egunean hor ez zen norbeitek partez hartua izanik, permisionez etxera etorri eta ez zen erreximendura itzuli. Baigorriko jandarmek bildu zuten eta militarren presondegira zeramaten.

Jandarmak loriatuak ziren desertur bat hatxemanik. Zinezko izurritea zen Euskal Herrian. Frantziako desertur eta intsumitu guzien erdia baino gehiago Euskal Herri xoko honetakoa zen! Feiria egunarekin gazte ainitzek ikusiko zuten zer gertatzen ahal zitzaizkien intsumitu edo desertur izatea erabakitzen bazuten: eskuak mañotaturik, bi jandarmen artean presondegira eramanez izanen ziren.

Uste izan baldin bazuten desertatzeko gogoak kenduko ziotela zenbaiti bederen, ez ziren guti tronpatu. Alde guzietarik libertatearen haizeak ufutzen eta ez zen segurki norbeit preso emateko ordua!

Ganitxipi, Laborden anaiak lagun batzu beroturik, jandarmen eskuetarik ihes egiten lagundu zuten deserturra. Espil Baigorriko jandarmak gibeletik harrapatu zuen bere anaia laxa arazi nahiz. Donibaneko jandarmeriara eraman nahi zuten deserturra. Artean gazteak biltzen hasi ziren, eta, beldurturik, jandarma bat joan zen merkatu ondoan, guardiako ziren

soldadoen laguntza eskatzeko. Zazpi soldadorekin etorri zen, baina arte horretan gazteen nonbrea handitua zen eta beti handituz ari. Oihuka! Makila airean, dena mehatxu. Zer ziren hamar bat jandarma eta soldado, gazte elementia berotu horren aintzinean? Brigadierrari zuhurtzia iduritu zitzaion, tokiak husturik, denak Mendiri etxera joitea haizolbira, bidean makil ukaldi zenbeit bildurikan ere.

Gazteak ere jarraiki zitzaizkien eta laster etxea setiatua izan zen. Beherean zirenei zegotara bat ur botatzeaz deus abilagorik ez zitzaion gogoratu lehen solairuan zen emazte ments bati. Gazteak erotu ziren eta harrika hasi ate leihoeri, sekulako berina aldea hausten zutela (lau kiloko harriak hatxeman ziren gero etxe barnean). Leiho zenbeiten muntadurak ere hautsiak izan ziren. Jandarmak ez ziren fida baino gehiago barne hartan.

Bozken ondorioak kondatzen ari baitziren auzitegian, merkatuko arramantzak hara arte heldu ziren. Schilt suprefeta, Leonard Barbaste axuanta eta Renaud deputatu gaia etorri ziren zer pasatzen zen jakin beharrez.

Renaud ikustearekin gazteak hasi ziren oihuka: "Biba Renaud! Aupa gure adiskidea!" Zerbeit egiteko manera bazen oraino. Politikariari esplikatu zioten deserturra libratu nahi zutela. Honek berehala ikusi zuen mutikoaren libratzeaz beste aterabiderik ez zela. Akort eman ziren: Schilt, Barbaste eta Renaud barnean sartuko ziren gazteen hiru ordezkariarekin Bidarraitarra libratzeko. Gazteen ordezkarietan, Ganitxipi, soldadoaren anaia eta Piarres Arbelbide Ortzaize Iriberrigaraikoa, lekuko guziek aipatzen baitituzte bere begi itsusiak, xuxen nor den ez dakitela erraten badute ere.

Sartzen dira beraz, etxe guzia miatzen nehor aurkitu gabe. Etxegibeleko leihotik jauzi eginik eskapatua zen jadanik Joanes, jandarma eta soldadoak gaineko gela batetan gorderik zeudela, atea barnetik hetsirik, zer gertatuko ote zitzaion xifrituak.

Seiak leiho batetan agertzen dira berri ona jakin arazteko: Joanes Laborde ez zela hor, eskapatua zela. Gazteak oihuka hasi ziren orudan beren bozkarioa erakusteko "Biba libertatea! Biba errepublika! Biba Renaud! Biba Xaho!" Horra gazteak ezitituak. Afera konpondua zen.

Arte horretan, Arsene Darrieux medikua, herriko auzapeza, herriko ordrearen arduraduna, guarda nazionalako gizonen bila joana zen. Fort kapitaina ikusirik, atabala deitu zezan manatua zion, bere guardiak biltzeko. Non zeukan atabala joilea ez zekien. Herriko atabala joilea aurkitu zuten baina honek ez zeukan atabalarik berekin. Auzapeza eta kapitaina, biak beren alde joan ziren orduan, ikusi guarda nazional guzien biltzera.

Auzapezaz besterik ere bazen Donibanen ordrearen arrangurarekin: gazteluko soldadoak. Joseph Moreau kapitaina Mañeenian zen, bere sukaldean, beste aintzindari batzuekin, Casse liotonanta etorri zitzaiolarik zer pasatzen zen kondatzera. Abian igan ziren gaztelura eta kolonelarekin erabaki zuten kapitaina jautsiko zela, 50 soldadorekin, Euskaldun bero horiek errexi arazteko.

Mendiri etxaintzinean denak ezitituak ziren, batzu jadanik ostatueta sartuak beren garraipena zor zitzaion bezela ospatzeko, gazteluko karrikan atabala entzun zelarik: armada merkatura heldu. Renaud-ri eskapatu zitzaiaon: "Debruek eraman dik botiga guzia!"

Auzapezak ere berehala senditu zuen non zen oraikoan zinezko lanjerra. Abiatu zen soldadoeri buruz. Gazteak ere bai, erotuak, zer zen istorio hori, orai, denak hoin polliki bururutuak zirela iduri zuelarik.

Frantziako atera hurbiltzen ari ziren soldadoak beren harma-baionetak eskutan, Fort jaunak lehenik, auzapezak gero erran zuelarik hobe zutela gaztelura itzultzea, sekulako saltsa-

ren hirriskua bazela bestenez. Arte horretan gazteak ere etorri ziren soldadoetarik zenbeit metro tara. Auzapeza kapitainarekin solasean ikustearekin uste izan zuten soldadoen deitzen izana zela. Norbaitek harri handi batez mehatxatu zituen granadierrak eta hauek harmak altxatu zituzten baionetak aintzina buruz emanez. Harria eskuan zeukan gaztea gerritik hartu zuen auzapezak, gibelera ekarri, denbora berean keinu egiten ziola kapitainari. Honek bere sabrea zorroan sartu zuen, harmak apal arazi soldadoei eta gazteluari buruz abiatu ziren. Bainan gazteak jarraikitzen zitzaizkien dena oihu eta mehatxu.

Auzapeza, soldado eta gazten artean zegoen, gibelka joanki karrikari goiti. Makil kaska zenbeit izan zituen. Sakelatik atera eta zinta urdin xuri gorria, jauntzi zuen Darrieux jaunak, bere karguaren ezagutgarri. Ez baitzuen oihal pozi horrek larderiarik aski gazteen hasarrearentzat! Beste makil ukaldi zenbeit izan zuen auzapezak eta txapela bota zioten burutik.

Presondegiari hurbiltzen ari ziren, Jondoni Jakobe atea aintzin, auzapezaren heinera heldu zirelarik hiru lehenak, batzu ala besteak ezagutuak izan gabe pasa ez zitezkeenak: Ortzaitzara begi arraro hura; mako bat eskuan, mainguka zoan gaitzeko gizona, Jatsu Lohilakat, eta Xiberotarrez mintzo zen bakarra, Ahatsa Arrokgaraiko mutila, Janpiarra.

Auzapeza gerritik har eta lurrera bota zuen batek. Lurrean zegoen zabal zabala, kolpek segitzen zutela. Ondoko baratzean ari baitzen Eñaut Etxart Makaro guardia ohia, laguntzaz etorri zitzaion, bai eta Lapeirade tornaria eta Salaberri maraisturia, hau auzapezaren gainean ematen zela xutik, burua bere bi zangoen artean gerizatuz.

– Aski Horrela! Utz ezazue bizirik.

Nonbeitoko xantza. Presondegiak Darrieux ahantz arazi zien.

– Hemen direnek ere badute libro izateko eskubidea. Libra ditzagun! Oihu egin zuen norbeitok.

Denak metatu ziren ate aintzinean. Roze Fonrouge, presozainaren emaztea sukaldeko leihotik so eman zen, zer pasatzen zen, kanpoan zer gertatzen zen kurios.

– Idek axu atea. Libertatea duxu orai.

– Ez dixut atea idekitzeko dretxorik nik eta senarra ez dixut etxen.

Kolo, zaldi bat ebatsirik preso den Xaaxtian Etxeberri Madalenako buhame baten aita dute berotuena. Alabainan!

Delako semea, libertate oihu horiek entzutearekin leihoan agertzen da burdinen gibeletik, dena keinu kanpokoei. Murru bati kantoi harria kendurik, honekin hasten dira ateari banpaka. Haur batek aizkora bat ekarririk nonbeitik, kanpoan den mahain bat xehatzen dute eta honen zango batekin, leihotxo aintzinean diren burdinak kentzen dute.

Xifritua atea idekitzen die azkenean Roze-k. Sartzen dira. Alabaren baxterta besotan duela, emaztea lepotik harturik murru paretari kontre tinkatzen du batek.

– Orai emanen ditun gakoak! Hire onetan! Hamar presoak libratu behar ditinagu.

– Bat baizik ez duk!

– Bota gakoak! Guhaurek ikusiko dinagu.

Gakoak eman eta, xirio bat behar zuten, sotoan norbeit ba ote zen ikusteko. Beste batzuk eskeler besoko lau ziri moztzen dituzte. Orogen buru, preso bakar bat baizik ez zen: Etxeberri. Honekin jalgi ziren oihuka:

– “Biba libertatea! Biba Errepublikak! Biba gu eta gutarrak!”

Artean, Darrieux xutitzen lagundua zuten eta gatzelura eraman nahi, baina honek ezetz, bere herria Jondoni Jakoberen atean gelditzen zela, hor berean. Ez zela haratago joanen hilen bazuten ere. Murru bati kontra doi bat pausatutik, bi urratsetan zen Markesenea etxera eraman zuten, hor bizi baitzen Eñaut Etxarten arreba. Gazteak aldiz hirira jautsi ziren oihuka. Irabazia zuten. Bai! Libertatea zen! Bi gizon libratuak zituzten, deserturra eta preso zen buhamea.

Jandarma eta haiekilako soldadoak arratseko zortziak eta erdiak arte egon ziren beren Mendiriko gelan gakaturik, zuhurtzia handirekin. Jalgi zirelarik, aspaldi zuen saltegi eta etxe guzietako ate eta leihoak hetsiak zirela: lauak eta erdietako, Donibaneke iduri zuen etsiak harturikako hiri bat: hiri hila! Arratseko zortziak ondoan baizik ez ziren beren etxetik ateratzea menturatu soldado eta jandarmak.

AUZIA

Gertakari horien denen ondotik auziak izan ziren Paben. Ez zuten urterik ematen gaur egun bezela auzi bat egiteko. Lehena hain zuzen Garazikoa. Gertakariak apirilean izanik, auzia agorrilean berean egin zuten. Laurogoi bat lekuko bazuten galdestaturik eta hamasei deituak ziren Pabera.

Akusatuak, ez ziren denak hor. Harizpe Donibaneke uxerra izana zen Jatsu, Ahatsa eta Mendiben, Lohilakat, Gatzontzi eta Janpiarra Xiberoren etxetan, baina hiru xoriak airatuak ziren. Atabala jo arazi ondoan, hiru herrietako plazetan jakin arazi zuen hiru gizon horiek Paben agertu behar zutela, eta norbeitek zerbeit baldin bazekien horietaz, jakin arazi behar ziola lehen bai lehen, berak gatzigatua izan nahi ez bazuen. Peio Gatzontzi Beltza, Mendibeko hargina, Orontz bere sor lekura itzulia zen, mugaz bestaldean. Xibero eta Lohilakat ere, itxura guzien arabera, mugaren haizolbian emanak ziren. Dena den hiruak ez ziren Paben.

Abokata biziki abilki jokatu zen. Renaud jaun deputatu berriak gomendaturik, eskuindiar bat hartua zuten. Honek azpimarratu zuen denbora nahasiak zirela. Parisen iraultza izana eta aldaketa handiak ekarri zituela gizartean, bai eta jenden gogoetan. Parisen, Frantzia kudeatzen zuten politika gizonen berek pusatua zutela herria aldaketa handiak eskatzera.

Hor, jujeen aintzinean ziren gizon horiek ere, aspalditik asmatzen zituzten aldaketak bazituztela gogoan: soldadogorik ez egitea, abereak librokiko igortzea mendietara. Nolaz eman hauen gain hutsa, Parise zutelarik akulatzaile? Akulatzaileak ziren hobendunak. Haiek zuketena gatzigatuak izan beharko eta ez, hor zeuden jende xume horiek.

Gainera aitortu behar da akusatuak poxi bat itsurat hartuak zituztela. Ikerketan galdestuak izanak ziren lekuko gehienek nehor ez zuten ezagutu, jandarmeei erran zietenaz bederen! Ikusiak zituztela ba hola eta hula ari, baina gizon horiek ez zituztela ezagutzen. Darrieux auzapezak berak, izen bakar bat ez zuen eman ahal izana, ofizioz medikua izanki eta jende aintz ezagutzen zuelarik! Ez zuten ukatu ahal izan halere, gizon bat arraila bazela mainguka zebilena, makola bat eskuan: Lohilakat. Xiberotarrez mintzo zena, bakar bat baizik ez zen. Ez zezaketen erran ez zirela berezitasun horri oharitu. Arbelbidek bi begiak diferentak baitzuten, nor erran zezakeen ez zuela hori ikusi? Ganitxipi, deserturraren anaia, jandarmek berek ezagutua zuten.

Baina ez zen dudarik, hobendun gehienak ez zirela hor... Garaztarrek ez zituztelakotz saldu nahi izan. “Badakizu, hainbeste jende bazen! nondik nahi duzu erran dezadan nor

zen? "Hori zen denen leloa, ikertzaileak bere gaideak xorroxten zituelarik. Nabari delarik Garaztar guziek elgar ezagutzen zutela.

Abokataren arrazoinamenduak hunki zituen jujeak. Beren ikusmoldeak zituen abokat baten ahotik gainera. Denak zuriak ziren eta Parisen boterean ziren gorri haiek, burubero, bazter nahasle batzuentzat zeuzkaten. Egia erran, akusatuak ziren horiek libre uztea, Parisko manatariaik kondenatzea litekeelako ideia hori oso gustatu zitzairen. Nahiz, jandarma eta auzapez bat jo zuten gazte horiek. Huts larria zen hori. Hautsi mausti bat egin zuten.

Laborde Ganitxipi deserturraren anaia, Domingo Aroztegi, Donazaharreko mando bilomoxleak eta Beñat Jaurito Lako, Ezterentzubiko ikazkinak bedera hilabete presondegi bildu zuten. Eskeruarien doa, ez zirela arras inoxentak erakusteko. Oro har bizki gutti, izaten ahal zutenaren aldean. Garat Poxelu beste akustua, libre utzi zuten kargurik gabe.

Armendaritzeko auzia agorrilaren 15an iragan zen. Gabriel Etxebazter Ameztoi, Domingo Urrux Larre, Antoni Bidegain, Arnaud Elizeiri, Pierre Mendiburu, Gillome Athor Kurutxet eta Pierre Etxeberri, akusatu guziak, hobengabe deklaratu zituzten asisetako kortean.

Garaziko auzian, hiru baziren falta eta horietan beraz gure Lohilakat.

Akusatu gehienek, herriko auzapezaren ageri bat ekarria zuten, gizon onak eta serioak zirela. Beren bizian behin ere ez zutela gaixtakeriarik egin.

Ihesi joana zen Lohilakatena zen dotoreena, idazki ederrez ixkiriatua. Hona itzulpena: "*Gu, Jatsuko auzapez eta herrigizonek segurtatzen dugu Erramun Mindurri jauna, laboraria, Lohilakateko nagusia, hiru haur ttipiren aita, fama oneko gizona dela, bizi serioa eta ona deramala betidanik; Segurtatzen dugu ere, Erramun Mindurri, familia oneko semea dela, behin ere ez dela kondenatua ez auziperatua izan, ez ozhointza, ez joka paratida ez eta beste edozoin galdukeria gatik.*

Atsegin handirekin diogu beraz ageri hau ematen.

Ageria ez zuten bakarrik Etxart auzapezak eta herri gizonek izenpetu, baina izenpetzeko doi bat gai ziren Jatsuar guziek: 34 izen badira ageriaren pean, hots, hamar Jatsuarretarik bat! Bost gizonetaraik bat, eta haurrak kenduz geroz, gizon helduen erdiak.

Luzaiden baitzitekeen gure Erramun, Pabeko berria jakin zuen. Libre izatekotan baldin bazen, etxera itzuliko zen. Ez dakigu zuzen nola iragan ziren azken gertakariak, baina badakigu Paben gelditu zutela jandarmek hazaraoaren 3an. Menturaz Renaud-k edo abokatak kontseilaturik bera agertu zen auzitegian.

Bainan arte horretan haizea itzulia baitzen! Jujek ez zuten huts egin. Hiru urteren presondegia eman zioten. Auziaren fres guziak bere gain, 500bat liberena baitzen! Diru hori ezin pagatuz ote zen gaizki bururatu Lohilakaten bizia? Ikerketa paperretan ikusi dugu 108 liberetan erosi zuela behi bat egun hartan Ortzaitar batek. Bost behiren balioak eman ote zuen Lohilakat peko errekan? '*Gobernioa, hari eta haren ontasunei laparra bezela loturik. errekan ezarri zuen bere etxalde ederra eta orai hogoi ta bost bat urte, hiru hogoi eta hamabost urte-tan, etxeko nausi ttipi hil izan da Lohilakat handia*', dio Barbier-ek.

HISTORIA ETA IPUIA

Barbier-ek aipatzen duen 1848ko iraultza eta merkatu eguna bere jendeketa handiarekin, historikoak dira. Deserturrak ez ziren multsoan, baina bat bakarra. Ez zuten Gaztelura eramane baina oraiko herriko etxera. Garaztarrak ez ziren makil ukaldika ari izan soldadoe-

kin, hauek gibelka joan baitziren. Makil ukaldi zenbeit izan ziren, baina auzapezak eta beste bakar batzuek zituzten jasan. Presondegia ez zen Gazteluan baina Gazteluko karrikan. Hortik ez zuten deserturrik libratu, baina ohointzan ari izanik gakatua zuten buhame bat. Deserturra, bera joan zen ihesi. Jandarmek ez zuten Lohilakatik ikusi bere etxean eta ez zuen honek golde nabarrik hartu esku bakar. Ihesi joana zelakotz, atabala jo zuten Jatsuko plazan, norbeitik haren berri baldin bazekien, jakin arazi behar zuela gaztiazteko. Lohilakatek ez zuen Zabaltzan ihes egiterik izan, bera baitzen zen Pabera joan eta han baitzuten gelditu. 71 urte eta erdi zituen hil zelarik, beraz Barbier-ek aipatu 75etarik frango hurbil.

Lohilakateko azken nagusia ezagutu dugu duela 20 urte hurbil. Nahiz "amerikanoa," zaldi korrosetan joaten zen astelehen oroz Donibaneko merkatura. Bere aitona bezela gogorra zelako fama utzia du, Gizon bat ederra zen, gaztean gure Erramun bezen azkarra izana zitekeen. Hila da eta geroztik etxea hutsik dago, Suhuskun eta Jatsuko mugetan, bide handi basterrean, murru paretak arraitzen ari zaizkiola. Arraza ez da desagertua.

1846an, ezkondu zen urte berean, Lohilakat-i sortu zitzaion *Mari*, lehen alaba, abendoaren 2an. Argentinan ezkondu behar zuen Manuel Reynarekin, 1879ko hazaroaren 4an. 1934ko martxoaren 20an zendu zen hirur haur izan eta: Juan Manuel, Ireneo eta Maria Elia, hiruak familiatu zirenak eta 9, 8 eta 4 haur izan.

1847an bigarren *Mari* bat sortu zen Lohilakatian eta 1848ko otsailaren 28an hirugarren neska bat, *Dominika*.

Laugarren haurra, *Martin*, sortu zitzaion 1852ko uztailaren 7an. hau zapatain izan zen eta Isabelle Campo Mendibetarrarekin ezkondu 1881ko hazaroaren 9an. Bi haur izan zituzten, Erramun, 1882ko agorrilaren 22an eta Mari Baptiste, 1883ko agorrilaren 29an, Saint Denis hirian ezkondu zena Delaunay batekin 1916an. 1953an zendu zen alaba bat izanik, Gracianne.

Bosgarren haurra, *Pierre* 1856ko uztailaren 29an. Marianne Mounhorekin ezkondu zen eta Argentinan hil 1894ko irailaren 9an. Bost haur izan zituzten, Katalina, Juan Jose, Maria, Mariana eta Paola, denak haurrik gabe desagertuak iduriz.

Seigarrena, *Mari Eder*, 1858ko apirilaren 14an. 1898ko urriaren 12an ezkondu zen Lohilakatean, Betti Gaztonjauregi Ainhiztarrarekin. 1951an zendu zen 93 urtetan, lau haurri bizia eman ondoan, lauak Lohilakatean bizi izan direnak. Mariena, 1898ko hazaroaren 21an sortua, Pierre Haranbururekin ezkondu zena 1936ko otsailaren 18an. 1974an zendu zen. Bigarren Mariena bat 1901ko urtatsez sortua eta hamar egun berantago hila. Francis 1903ko urtarrilaren 31 sortua eta 1984ko otsailaren 15an zendua, Azkena, 1903ko irailaren 18an sortua, 1985ko urriaren 3an zendua. Geroztik Lohilakatea hutsik dago.

Zazpigarren seme bat, *Jean*, 1859ko maiatzaren 28an sortu zen eta Argentinan zendu 1909ko urtarrilaren 27an. Magdalena Rospidekin ezkondu zen 1896ko uztailaren 30an. Lau haur izan zituzten, Jean, Fermin, Susana eta Domingo.

ITURRIAK

Egunkariak: Lau baziren Baionan

L'Ariel Xahoren kaseta. 300 bat ale saltzen zen.

L'Internationnal erregetiarra (600 ale)

La Sentinelle eta honen ondotik *L'Eclairleur* errepublikarra (600 ale)

Le Journal du Peuple

Paben baziren biga:

Le Memorial, gobernuren aldekoa. Honetan dira gehienik aipatuak Baxe Nabarre eta Xiberoa. Mauleko arondizamendua

L'Observateur eta gero *La Constitution*, errepublikarra

Pabeko artxibotan

2U936: Armendaritzeko auzia

2U937, Garaziko auzia

Ezer ez AmiKuze, Atarratze, Donaixti, Urdiñarbe eta Dindabururen auzietaz.

Oihanen arazoa Kontseilu Nagusiko biltzarretan aipatua izana da 1848 (196-209 orrialdeetan), 1849 (79-85o.), 1950 (56-57o)

Orduko garaietaz egina du bere tesa V. Wright Ingelesak: "The Basses Pyrénées from 1848-1870, London 1965 (3 tomo)

Lan honen parte handi bat artikulutan agertua da:

- L'enseignement primaire dans les Basses Pyrénées de 1830 à 1848: Bulletin de la Société des Lettres et Arts de Pau, 1971, 160-173
- La Presse dans les Basses Pyrénées. BSLAP 1971, 175-197
- Les élections dans les Basses Pyrénées de 1848 à 1870. Bulletin de la Société des Lettres et Arts de Bayonne, 1970, 1-32, 107-126.
- Religion et Politique dans les Basses Pyrénées pendant la deuxième République et le premier Empire. Annales du midi 1969, 403-434.

Familaren berri izan dugu Charles Cabrol Donibaneko notarioa, Bertrand Maitia Jatsuko erretorra, Beñat Aldacourou auzapeza eta Harispe anderea herriko idazkariaren laguntzari esker.